



ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUENTZAKO EDUKIONTZIA **GILTZAPEAN**

Etxeko hondakin arriskutsuetako edukiontzia, pilotaleku ondoko eskailera azpian kokatzen da. Edukiontzi honetan, hondakin arriskutsuez gain, traste zaharrak uzten direla ikusi da eta hau, ez da egokia. Horregatik, edukiontzi hau giltzapean jarri da. Hemendik aurrera hondakin arriskutsuak bota behar dituztenek, UDALEAN GILTZA ESKATU beharko dute

Bide batez gogoratu arazi, traste zaharrak **EZIN** direla edukiontzien ondoan edozein egunetan utzi. Bilketa hileko 2. asteko ostegunetan egiten da eta bezperan (asteazkenean) atera behar dira trasteak. Bilketa egiteko, aurrez, telefono honetara deitu behar da jasotzera etortzeko 943 67 62 16 eta bestela, garbigunera norberak eman behar dituela. Garbiguneetan gustu handiz jasotzen dituzte, Tolosako Garbigunean, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:30etara.

Mesedez, traste zaharrak badituzue eta herriko bilketara zain egon gabe kendu nahi badituzue garbigunera eraman.

Orri honen atzeko aldean dituzue, hondakin arriskutsuetako edukiontzian zer bota daiteken, garbigunera zer eraman daiteken eta Traste zaharren edo bolumen handikoen bilketarako zer utzi daiteken.

Honela, herriko hondakinen gunea txukunago egongo da. Zalantzarik baduzue deitu mesedez.

Baliarrainen, 2016ko maiatzaren 20ean.

Alkateak




HONDAKIN ARRISKUTSUENTZAKO EDUKIONTZIAN zer utzi daiteke?

- motorretako olio lubrifikatzaileak
- autoetako bateria
- pinturak, barnizak, disolbatzaileak
- fluoreszenteak eta lanpara halogenoak
- pilak eta metagailuak
- aerosolak
- kolak eta itsasgarriak
- garbiketako produktuak (lixiba, amoniakoa)
- inpresorako kartutxoak eta tonerrak
- termometroak
- erradiografiak
- aparatu elektriko txikiak eta telefono mugikorrak



GARBIGUNERA zer eraman daiteke?

- Obra hondakinak
- Plastikoak: bidioiak, bilgarriak
- Gauza handiak: altzariak, koltxoiak
- Papera eta kartoia
- Metalak eta txatarra
- Inausketako eta lorezaintzako hondakinak
- Egurra: paletak, kaxak, oholak
- Tailerretatik ez datozen autoen neumatikoak
- Arropa
- Beirazko ontziak
- Plastikozko, metalezko eta brik-motako ontziak
- Etxetresna elektrikoak: hozkailuak, garbigailuak, ordenagailuak, telebistak
- Etxeko hondakin arriskutsuak: fluoreszenteak, pilak, sukaldeko eta autoetako olioak, bateriak, pinturak, aerosolak, disolbatzaileak, fitosanitarioak, tonerrak, etab.



TRASTE ZAHARREN BILKETA ZERBITZUA Zein hondakin utzi behar dira?

- Etxeko tresna handiak: altzariak, koltxoiak, linea zuriko etxetresna elektrikoak (hozkailuak, ikuzgailuak, etab.), linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak (telebistak, ordenagailuak, etab.).

Ez utzi

- Ezin da utzi obra-hondakinik, pneumatikorik, paletik, paperik, kartoirik edo/eta zabor-poltsarik. Horretarako, erabil ezazu Garbigunea.

Bilketa hileko 2. asteko ostegunetan beti ere aurrez deituta.

Jasotzera etortzeko 943 67 62 16 Telefonora deitu